



2008ko URTARRILAREN -24ko HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIAREN EBAZPENA, ZENBAIT LANPOSTU ZERBITZU-EGINKIZUNEAN BETETZEKO DEITZEN DITUENA.

Ebazpen honek zenbait lanpostu, Hezkuntza Sailburuordetzaren proposamenez, zerbitzu-eginkizunean betetzeko deitzea du helburu, ondorengo oinarrien arabera.

OINARRIAK:

Lehenengoa.- I. eranskinean agertzen diren ISEI-IVEIko lanpostuak deitzen dira, zerbitzu-eginkizunean betetzeko.

Bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-Maistren, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoetako karrerako funtzionarioek hartu ahal izango dute deialdi honetan parte, baita zerbitzu aktiboan ari diren eta I. eranskinean agertutako baldintzak betetzen dituzten mugarik gabeko lan-legepeko kontratatuek ere.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira aurreko ikasturteetan eman zaien zerbitzu-eginkizuna luzatzeko asmoa agertu dutenak.

Honako hauek ere ezingo dira aurkeztu: Laguntza Zerbitzuetan aldi baterako atxikipenarekin dihardutenak, edota Zerbitzu horietan aldi baterako atxikita egonik, aldi baterako atxikipen horri utzi eta jatorrizko lanpostura itzultzeko aukera egin dutenak.

Behin zerbitzu-eginkizuna esleituz gero, ezin izango zaio uko egin, harik eta deialdi honen xede den ikasturtea amaitzen den arte.

Hirugarrena.- Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek Langileriaren Kudeaketa zuzendariari bidali beharko diote eskabidea, baita eskaturiko baldintzak eta alegaturiko merezimenduak egiaztatzeko agiriak ere, oinarri hauetako eranskinetan azaltzen diren aurreikuspenei jarraiki.

Igorritako fotokopia guztiekin batera lurralde ordezkarietarako luzaturiko erkatze-eginbideak ere igorriko dira.

ISEI-IVEIko zenbait lanpostu bete nahi dituzten izangaiek memoria bat idatzi beharko dute, hamar foliokoa, gehienez, alde bakarretik eta lerroarte bikoitzean, bete beharreko funtzioei eta lanari buruzkoa.



Puntuazioaren % 50 atera beharko dute gutxienez izangaiek, hala memorian nola elkarrizketan (memoriaren puntuazioaren % 50 baino gehiago ateratzen duten izangaiei baino ez zaie elkarrizketarako deituko). Baremoko puntuazioaren % 40 baino gehiago atera beharko da, gainera.

Laugarrena.- Parte hartzeko eskabidea, arauturiko ereduaren arabera, Hhezkuntzako lurralde ordezkarietara aurkeztu beharko da, beranduenez otsailaren 1ra arte (berau barne).

Bosgarrena.- Lehiaketariak alegatutako merezimenduak baloratzeko batzorde bat eratuko da, eta ondoko kideak izango ditu:

- Hezkuntza sailburuordea edo eskuordetzen duen pertsona, batzordeburu gisa jardungo duena.
- ISEI/IVEIko zuzendaria.
- ISEI/IVEIko teknikari bat, idazkari gisa jardungo duena.
- Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzako teknikari bat.

- Halaber, alorrean behar besteko ordezkariak duten sindikatu eta ordezkari bana izango du Batzordeak.

Batzordeak aholkulari teknikoak iritsia jaso dezake memoriak baloratu eta elkarrizketak egiteko.

Seigarrena.- Ez dira baloratuko eskarian aurkeztu ez diren merezimenduak, ezta, eskarian aurkeztuta, behar bezala egiaztatzen ez direnak ere.

Zazpigarrena.- Puntuazio guztiak gehitu ondoren berdinketarik gertatuz gero, baremoaren arlo bakoitzean puntuak gehien lortu izana kontuan hartuta ebatziko dira, lehenengo agertzen den ataletik hasi eta azkeneraino jarraituz.

Hala ere, berdinketak bere horretan badirau, azpiataletan lortutako puntuak hartuko dira aintzat, baina, lehen bezala, baremoan agertzen diren hurrenkerari jarraituz.

Bi kasutan, atal eta azpiatal bakoitzean kontuan izango den puntuazioa ezin izango da baremoan arlo bakoitzerako finkatutako puntuaziorik altuena baino handiagoa izan.

Zortzigarrena.- Langileriaren Kudeaketa zuzendariak ebatziko ditu zerbitzu-eginkizunak, Batzordeak proposamena egin ondoren.

Bederatzigarrena.- Zerbitzu-eginkizunak 2007-2008 ikasturtearen bukaerara arte egongo dira indarrean eta hurrengo urteetan luzatu ahal izango dira, betiere egindako lanaren ebaluazioa aldekoa baldin bada.



Hamargarrena.- Deialdi honetan aukeratutako irakasleek zerbitzu-eginkizunean betetzen duten lanpostuaren ordainsariak jasoko dituzte eta ISEI-IVEIren ordutegi eta egutegiaren arabera jardungo dute.

Hamaikagarrena.-Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, Hezkuntzako lurralde ordezkarietzan argitaratu eta biharamunetik hasita, Herri- Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko urtarrilaren 24an

**LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA
ITZIAR GARAIZAR AGIRRE**



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordetza
Langileriaren Kudeaketa zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

I. ERANSKINA

IRAGARRITAKO LANPOSTUAK ETA BETEKIZUNAK

LANPOSTUA	BETEKIZUNAK
Eskola Antolaketaren Taldeko Koordinatzailea	Taldea A/B. 2HE B.Goi mailakoa. Zuzendaritza edo antzekoetan: 3 urte
Harreman eta Bizikidetzako teknikari-aditua	Taldea A/B. 2HE B. Goi mailakoa. Zuzendaritzako zereginetan: 3urte



II. ERANSKINA

BAREMOA

GEHIENEZKOA, GUZTIRA: 19 puntu

1.- Memoria: gehienez ere 4 puntu.

2.- Elkarrizketa: gehienez ere 4 puntu.

3.- Esperientzia: gehienez ere 4 puntu.

- Lan-esperientzia irakaskuntzari laguntza emateko zerbitzuetan (PAT, IIHII, CEI...), esperientzia zuzendaritza-taldeetan edo hezkuntza-administrazioko lanpostuetan, edo esperientzia prestakuntza- edo berrikuntza-taldeen koordinazioan, laguntza- zerbitzuetatik kanpo: 0,25 puntu urteko (gehienez ere puntu 1)

- Eskatzen den postuaren eremuarekin zerikusia duten esperientzietan parte hartzeagatik: 0,25 puntu urteko (gehienez ere puntu 1)

- Eskatzen den postuaren eremuarekin zerikusia duten proiektuak dinamizatu eta koordinatzeagatik: 0,50 puntu urteko (gehienez ere 2 puntu)

4.- Prestakuntza: gehienez ere 1,5 puntu.

Hamar ordutik gorako ziurtagiri ofizialak baloratuko dira, baita Hezkuntza Sailak homologatuak ere (ordu kopurua espresuki adierazita, edota ballikidetzaren ebazpenean aipatuta), eskatutako postuarekin edo eginkizunekin zerikusia badute. Bereziki, ingeleseko prestakuntza baloratuko da

Prestakuntzako 10 ordu bakoitzeko, 0,15 puntu

Ingeleseko prestakuntzako 10 ordu bakoitzeko, 0,20 puntu

|

5. Ponentziak edo ikastaroak ematea: gehienez ere 1,5 puntu.

Ziurtagiri ofizialak baloratuko dira, baita Hezkuntza Sailak homologatuak ere emandako ordu-kopurua espresuki adierazita, hala bada), eskatutako postuarekin edo eginkizunekin zerikusia badute.

- Emandako 10 ordu egiaztatu bakoitzeko, 0,20 puntu.

- Ponentzia bakoitzeko, 0,20 puntu

6. Argitalpenak (ISBN dutenak): gehienez ere 1, 5 puntu.



**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA
IKERKETA SAILA**
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordetza
Langileriaren Kudeaketa zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**
Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

Ondoko argitalpenak baloratuko dira: eskatzen den postuaren lan-eremuari dagozkionak. Honela baloratuko dira:

- artikulua: 0'25 puntu
- egile bakarreko liburuak, softwarea edo bideoak: 0,75 puntu.
- zenbait egile dituzten liburuak, softwarea edo bideoak: 0,25 puntu.

7. Antzintasuna hezkuntza-administrazioan: 0,15 puntu urteko (gehienez ere 2,5 puntu)



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordetza
Langileriaren Kudeaketa zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

III. ERANSKINA

HEZKUNTZARI LAGUNTZEKO ZERBITZUAK

ESKATZAILEAREN DATUAK

ABIZENAK:

IZENA:

NAN:

IKASTETXEA.

JAKINARAZPEPNETARAKO HELBIDEA

KALEA: ZK:

HERRIA:

POSTA KODEA:

TELEFONOA:

ESKATU DUEN LANPOSTUA

....., 2008koarena
INTERESATUAREN SINADURA



IV. ERANSKINA

AURKEZTUTAKO MEREZIMENDUEN ZERRENDA

1.- ANTZINATASUNA ADMINISTRAZIOAN:

2.- HIZKUNTZA ESKAKIZUNA:

3.- MEREZIMENDU AKADEMIKOAK:

4.- JASOTAKO PRESTAKUNTZA:

5.- ESPERIENTZIA:



**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA
IKERKETA SAILA**
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordetza
Langileriaren Kudeaketa zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**
Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

6.- ARGITALPENAK:

7.- EMANDAKO PONENTZIAK ETA IKASTAROAK:



**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA
IKERKETA SAILA**

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordetza
Langileriaren Kudeaketa zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal